IVAP
HERRI ARDURALARITZAREN
EUSKAL ERAKUNDEA



HEZKUNTZA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN

OPE 2022

KIDEGOA/CUERPO: MAISU-MAISTREN KIDEGOA / CUERPO DE MAESTROS-MAESTRAS

ESPEZIALITATEA / ESPECIALIDAD: PEDAGOGIA TERAPEUTIKOA / PEDAGOGÍA TERAPÉUTICA

Erakunde autonomiaduna
Organismo Autónomo
EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

TESTUINGURUA

Pedagogia Terapeutikoko irakaslea zara honako ezaugarriak dituen ikastetxe batean:

- Hiru lerroko ikastetxe publiko arrunta da.
- Hiri handi bateko auzo berri batean kokatuta dago.
- Hizkuntza-eredua D da.
- Ikasleen familiek egoera sozioekonomiko ertain-baxua dute, eta haien parte hartzea ikastetxean ez da aktiboa.

IKASGELAKO EGOERA

Oinarrizko Lehen Hezkuntzako 5.A gelan trebetasun maila ezberdineko 22 ikasle daude. Taldeko jatorri eta hizkuntza aniztasuna handia da.

Ikasleen arteko harremanak lagun-talde bereizietan antolatuta daude eta hainbat gatazka izan dituzte haien artean. Bide horretatik, irakasleen artean honako susmoa dago: ikasleek sare sozialetan jazarpenetik hurbil dauden harreman ez osasuntsuak omen dituztela. Elkarbizitza arazo horiek ikastetxean ardura piztu dute.

Bestalde, nabarmentzekoak dira **Ainhoa**, **Niko** eta **Ibrahim**-en kasuak:

Ainhoak Gizarte Zerbitzuengandik laguntza jasotzen du, bere familia-egoera zaurgarria dela eta. Laguntza behar izaten du antolaketan, eta ez du lan egiteko ohitura sendorik.

Oso berritsua da, gelako liderretako bat da eta gogoko du ikaskideen arreta jasotzea. Hala ere, nabari da besteen oniritzia behar duela bere autoestimua berresteko.

Nikok Haur Hezkuntzan egiten diren Haurren Garapena Behatzeko Eskaletan (HGBE) alerta seinaleak erakutsi zituen. Horren ondorioz, ikastetxean detekzio espezifikoa burutu zen, eta kasua mediku-zerbitzuetara bideratu zen. Bertan, Autismoaren Espektroko Nahasmenaren (AEN) diagnosia egin zioten.

Nikok zailtasunak ditu berdinen arteko komunikazioan eta kosta egiten zaio txantxak, hitz jokoak eta bestelakoak ulertzea. Era berean, bere iritzia zuzenean eta molde sozialetara egokitu gabe adierazten du.

Ikasgelan abstrakziorako joera du eta gertakizun, ekintza eta gai berrien aurrean urduri azaltzen da. Berak gogoko dituen gaiekin, aldiz, oso tematia da.

Arloko Norbanako Curriculum Egokitzapena (NCE) du "Euskara eta Literatura eta Gaztelania eta Literatura" arloan, Lehen Hezkuntzako 3.mailan oinarrituta.

Ibrahimen errendimendu akademikoak eta motibazioak nabari egin zuten behera azken urteetan. Egoera horren aurrean, ikastetxeko nahiz Berritzeguneko aholkularitzek hainbat proba psikometriko estandarizatu egin zizkioten, eta honako emaitzak egiaztatu zituzten: 132ko adimen-kozientea eta aparteko gaitasuna hizkuntzetan, matematikan eta arrazonamenduan.

Gelan aspertu egiten da: bertako dinamikek ez dute erakartzen, eta askotan esaten du klasean lantzen diren edukiak jada badakizkiela. Bere intereseko gaiak gelakoetatik urrun daude eta konplexuagoak dira.

ESKAKIZUNA PEDAGOGIA TERAPEUTIKOKO IRAKASLEARI

Sortu ikasgelako zein aipatutako ikasleen ezaugarri eta beharretara egokitutako esku-hartze proposamena, Euskara eta Literaturarako. Garatu honako atalak:

a) Oinarri orokorrak: curriculum-kokapena, planteamendu didaktikoak eta antolakuntzakoak (2 puntu)

b) Estrategia metodologikoak eta baliabide didaktikoak (3 puntu)

c) Irakaskuntzako eta ikaskuntzako jarduerak (2 puntu)

d) Baliabide pertsonalen arteko koordinazioa (1 puntu)

e) Proposamenaren ebaluazioa: ebaluazio-irizpideak eta lorpen-adierazleak. Irakaslana ebaluatzeko prozedurak (2 puntu)



CONTEXTO

Eres maestra o maestro de Pedagogía Terapéutica en un centro de las siguientes características:

- Es un colegio público ordinario de tres líneas.
- Está situado en un barrio nuevo de una gran ciudad.
- El modelo lingüístico es D.
- Las familias del alumnado tienen una situación socioeconómica media-baja y su participación no es activa en el centro.

SITUACIÓN EN EL AULA

En el aula 5ºA de Educación Primaria Básica hay 22 alumnos con diferentes niveles de destreza. La procedencia y leguas del grupo es diversa.

Las relaciones del alumnado están organizadas en grupos separados y ha habido varios conflictos entre ellos y ellas. En este sentido, existe la sospecha entre el profesorado de que el alumnado mantiene relaciones poco saludables y cercanas al acoso en las redes sociales. Estos problemas de convivencia han despertado la preocupación en el centro.

Por otro lado, destacan los casos de **Ainhoa, Niko e Ibrahim**:

Ainhoa recibe ayuda de Servicios Sociales por su situación familiar vulnerable. Necesita ayuda en la organización y no tiene hábitos de trabajo sólidos.

Es muy habladora, es una de las líderes de clase y le gusta recibir la atención de sus compañeros y compañeras. Sin embargo, se nota que necesita la aprobación de los demás para reafirmar su autoestima.

Niko mostró señales de alerta en las Escalas de Observación del Desarrollo Infantil (EODIs) que se realizan en Educación Infantil. Como consecuencia de ello, se llevó a cabo la detección específica en el centro y se derivé el caso a los servicios médicos. Allí se le diagnosticó Trastorno del Espectro Autista (TEA).

Niko tiene dificultades en la comunicación entre iguales y le cuesta entender las bromas, los juegos de palabras, etc. Asimismo, expresa su opinión directamente y sin adaptarse a las normas sociales.

Tiende a abstraerse en el aula y muestra nerviosismo ante nuevos acontecimientos, actividades y temas. En cambio, con los temas que a él le gustan es muy tozudo.

Tiene una Adaptación Curricular Individual de área (ACI) en el área de "Lengua Vasca y Literatura y Lengua Castellana y Literatura", basada en el 3º curso de Educación Primaria.



El rendimiento académico y la motivación de **Ibrahim** han disminuido considerablemente en los últimos años. Ante esa situación, las asesorías tanto del centro como del Berritzegune le realizaron diversas pruebas psicométricas estandarizadas y confirmaron los siguientes resultados: cociente intelectual de 132 y competencia excepcional en idiomas, matemáticas y razonamiento.

En clase se aburre: las dinámicas del aula no le atraen y muchas veces dice que ya conoce los contenidos que se trabajan en clase. Sus temas de interés distan de los de clase y son más complejos.

PETICIÓN AL PROFESOR DE PEDAGOGÍA TERAPÉUTICA

Crea una propuesta de intervención para Lengua Vasca y Literatura adaptada a las características y necesidades tanto del aula como del alumnado mencionado. Desarrolla los siguientes apartados:

- **a)** Bases generales: ubicación curricular, planteamientos didácticos y organizativos (2 puntos)
- **b)** Estrategias metodológicas y recursos didácticos (3 puntos)
- **c)** Actividades de enseñanza y aprendizaje (2 puntos)
- **d)** Coordinación entre recursos personales (1 punto)
- **e)** Evaluación de la propuesta: criterios de evaluación e indicadores de logro. Procedimientos de evaluación de la actividad docente (2 puntos)